

Responder a todos |   Eliminar Correo no deseado |  ...



Mozioa

PA

Paul Yarza Agirregomezkorta

Hoy, 8:51

Abiapuntu 

Responder a todos | 

AYUNTAMIENTO DE ERMUA/ERMUKO UDALA
REGISTRO GENERAL/ERREGISTRO OROKORRA
ENTRADA/SARRERA
Fecha/Data 10-10-17 09:22:17
Num./Zk. 7.588

Bandeja de entrada (Abiapuntu)

Sopladoreen Mozioa....



78 KB

 Mostrar todos 1 archivos adjuntos (78 KB) [descargar](#)

Egun on.

Paul Yarza Agirregomezkorta, 15.376769G nan zenbakia duenak, 2017ko urriaren 10an, Euskal Herria Bildu Ermua udal taldearen izenean, mozioa aurkezten dut Osoko Bilkuran eztabaidatua izan dadin.

Paul Yarza**Ermuko EH Bildu**

MOZIOA

Nazio Batuek sortu eta bultzatutako agenda 21 programaren 28. kapituluari, autoritate lokalen laguntza behar duten hainbat helburu erakusten dira: besteak beste: Giza osasuna babestea eta sustatzea, eta garapenerako baliabideak kontserbatzea eta kudeatzea: Atmosfera babestea

Eta programa honi jarraipena emanez, Ermuko udalak garatutako Agenda 21eko printzipio eta helburuen artean, 7.ak halaxe dio: "gure herritarren osasuna eta ongizatea hobetzeko eta bultzatzeko konpromisoa hartu dugu." Eta 8.k ere hauxe dio: "Klima babesteko ardura gureganatzeko konpromisoa hartu dugu"

Gaur egun munduak jasaten duen poluzio mehatxuak lau dira: atmosfera, lurra, ura eta zarata kontaminazioa. Aspalditik, gainera, zarata gure eguneroko bizitzaren ardura nagusienetakoa bilakatu da: etxe barruko zein kaleko, lantoki edota aisialdi guneetako zarata. Zarata ez da ikusten baina beraren jasatze etengabeak arazo fisiko zein psikologikoak sortzen ditu

Soinu kontaminazioari buruz ari garenean, zarataz ari gara, Giza jarduerak Gizakia eta animalien osasun auditiboa, fisikoa eta mentalaregan duen eragin negatibo zuzenaz. Eta zarata kasu hauetan kontaminante bat da, hau da pertsonengan efektu fisiologiko eta psikologiko kaltegarriak sortzen ditu

Estatu españolean konfort akustikoaren maila 55dBtan kokatzen da. Hortik gora, soinua kaltegarria da deskantsurako eta komunikaziorako. OMEk (Osasunaren Mundu Erakundeak) 70 dBtan jarri du soinuaren goi maila desiragarria (limite superior deseable)

Bestalde, jakina da konbustio motorrek sortzen duten atmosfera kontaminazioa, honetaz ez dago jada zalantzarik

Guzti hau kontutan hartuta Ermuko EHBildu taldeak ondorengo mozioa aurkezten dio udalari:

Herriko garbiketarako erabiltzen diren gasolinazko sopladoreak erabat debekatzea, atmosferarako kaltegarriak diren gas isurtzaileak direlako, eta eragiten duten soinua oso altua delako (bataz besteko 90dBkoa baita aparato hauena, goi maila desiragarriaren 70dBtatik oso gaineratik). Herritarren osasuna eta atsedena kaltetzen dutelako azken finean. Gainera ez da inolaz onargarria, garbiketarako erabiltzen den zerbitzu, berez zikintzailea izatea.